

6/24

irizpena

Teknologia Garbien Euskal Zerrenda
eguneratzen eta onartzen duen

Agindu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2024ko apirilaren 15a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 6/24

I.- AURREKARIAK

2024ko martxoaren 20an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren “Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen Agindu- proiektuari” buruzko txostena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan jasotakoaren arabera.

Kontsultatu zaigun arauaren xedea da Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikulua arautzen duen Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzea eta onartzea., Zerrenda horretan agindu horren eranskinean ageri diren teknologiak daude.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaien Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia igorri eta horien berri lan-batzorde egokiari helaraz ziezaioten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoari jarraiki.

2024ko apirilaren 9an, Ekonomiaren Garapen Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Kontseiluaren apirilaren 15eko Osoko Bilkurari aurkezteko, eta aho batez onetsi zen.

II.- EDUKIA

Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen agindu-proiektuak zioen azalpena, hiru artikulua, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta eranskin bat ditu.

Zioen azalpenaren arabera, Euskadin Eusko Jaurlaritzaren (Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez) eta Foru Aldundien zerga-organoen arteko lankidetzari esker, EAeko produkzio-sarean ingurumen-portaera hobea duten ekipoak ezarriz ekoizpen-prozesuen eraginkortasuna bultzatzen duen zerga-tresna bat dago.

Ingurumen-aldetik eraginkorrakoak diren Materialen eta Teknologien Euskal Zerrenda deritzon tresna zuzenean lotzen da indarrean dauden lege, estrategia, programa eta planekin. Horien artean:

- 2030erako Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategiak, 5. jarduketa-ildoan, 26. puntuan, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren agindu berria egitea ezartzen du, eta zerrendan baliabideen erabileran bigarren mailako materialak eta teknologia eraginkorrak sartzeko azterlana gehitzen da.
- 2030erako Euskadiko Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiak, 1.1.1.5 ekimenaren 1. jarduketa-ildoan, energia aurrezteko sustatzen du, ETEetan energia iraunkorrean inbertitzeko zerga-pizgarrien bidez.
- 2021eko Bioekonomia eta Ekonomia Zirkularraren Planak, 5.4 jarduketa-ildoan, bigarren mailako materialak eta baliabideen erabileran eraginkorrak diren teknologiak teknologia garbien zerrendan sartzeko azterlana ezartzen du.
- 2030erako Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planak, 9. lan-ildoan, ingurumen-aldetik eraginkorrakoak diren materialen eta teknologien euskal zerrenda jasotzen du funtsezko tresna gisa, hondakin-proiektuak finantzatzeko sarbidea errazteko, tresna ekonomikoak eta

fiskalitate berdeko tresnak garatzeko, bigarren mailako material eta produktuen lehiakortasuna bultzatzeko eta isurketari pizgarriak kentzeko.

- 2050erako Euskal Herriko Klima Aldaketaren Estrategiak, "hiriko hondakinen sorkuntza gutxitzea" 14. jarduketa-ildoan, barne hartzen du "Ingurumen-fiskalitateko neurriak definitzea eta ezartzea" 38. ekintza (adibidez: isurketa-kanona, sorreraren araberako ordainketa, lehengaiak erauzteko tasa), baita pizgarri fiskalak ere eta hori hondakinen sorrera, baliabideen erauzketa eta zabortegean biltegiatzea minimizatzeko.
- Halaber, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikulua adierazten du EAeko Administrazio Orokorrean ingurumenaren arloko eskumena duen sailak aldi-aldi onetsi eta eguneratuko duela ingurumen-aldetik eraginkorragoak diren teknologien eta materialen zerrenda bat. Hori sektore publikoko kontratuetan sartu ahal izango da, eta lehentasunezko irizpidetzat hartu ahal izango da, bai onura fiskalak ezartzerakoan, bai enpresei ingurumena hobetzeko inbertsioak egiteko dirulaguntzak ematerakoan, betiere zergen eta dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Ingurumen arloan eskumena duen sailburuaren 2006ko ekainaren 30eko, 2012ko irailaren 10eko eta 2016ko uztailaren 13ko aginduen bidez Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onetsi zen; Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren arauketa ezartzen duen martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuaren arabera. Horrekin lortu nahi da ingurumenaren ikuspegitik lehentasuna duten teknologiak zeintzuk diren identifikatzea. Horrela, zerga-politika horietara bideratu ahal izango da, bi ildotan: batetik, zerga-neurrien bidez teknologia horiek enpresen ekoizpen-prozesuan barneratzea sustatuko da; eta, bestetik, gastu-politika ezarriko da.

Azterketa aktibo sakon baten ostean zenbait teknologia detektatu dira, gehienak prebentiboak, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikuluan aipatzen den ingurumen arloko teknologia eraginkorragoaren kontzeptuarekin bat datozenak.

Ingurumen-aldetik eraginkorragoak diren materialak zerrendan sartzeko aukera abenduaren 9ko 10/2021 Legearen onespeneren ondorioaenez (martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuan ez zegoen), ezin izan da amaitu material horiek detektatzeko azterketa aktiboa. Zerrenda eguneratzen den hurrengo aldi sartuko dira.

Halaber, adierazi behar da Zerrendaren izena, hots, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda, mantentzen dela martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuaren arabera. Izan ere, abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ez du izen hori berariaz aldatu. Legeak "ingurumen-aldetik eraginkorragoak diren materialak eta teknologiak" aipatzen ditu, eta hori honela ulertu behar da: "zerrenda" terminoarekin batera doan "garbiak" adjektiboaren deskribapena da.

Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko uztailaren 13ko Agindua berariaz indargabetu da eta agindu berriak eranskinean aipatutako Teknologia Garbien zerrenda eguneratua du.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen aginduaren proiektua aurkeztu digute. Horrek Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikulua arautzen duen Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen du.

Agindu berri honek indarrean dagoen 2016ko Zerrenda eguneratzen du teknologia berriak sartzeko, azken aurrerapen teknikoan arabera. Horrela, EAEko instalazioen ingurumen portaera hobea lortzen da, eta hori **positiboki baloratzen** dugu.

Teknologien zerrenda hori martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuak arautzen du, eta dekretu horrek jarraibideak ezartzen ditu ingurumenaren ikuspegitik lehentasuna duten teknologiak zeintzuk diren identifikatzeko. Horrela, zerga-politika horietara bideratu ahal izango da, bi ildotan: batetik, zerga-neurrien bidez teknologia horiek enpresen ekoizpen-prozesuan barneratzea sustatuko da; eta, bestetik, gastu-politika ezarriko da.

Azken eguneratzetik igaro den denbora ikusita eta teknikoegia den Eranskinaren edukia baloratu gabe, **oso egokitzat jotzen dugu** azterketa aktibo berri bat egin ostean Zerrendan sartzeko teknologia berriak aukeratu izana eta kendu izana dagoeneko erabiltzen ez direnak edota aurrerapen teknologiko berrien bidez gainditu direnak.

Horrela, teknologia berri horiek ezartzearen ondoriozko zerga- eta dirulaguntza-neurriei hel diezaieketen enpresek hobeto lagunduko dute jasangarritasuna, ekonomia zirkularra eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzen, horretarako zehaztutako estrategietan ezartzen den bezala.

Aurrekoa gorabehera, teknologia garbien zerrenda zehaztatzeko beharrezkoa da arlo horretan ezagutza maila altua izatea eta eguneratuta egotea. Teknologiak etengabe eta oso azkar bilakatzen dira konplexuago.

Testuinguru horretan, egokia dirudi dagokion Zerrendan sartzeko teknologien hautaketa-prozesua diziplina anitzetan esperientzia duen **batzorde tekniko** batek egitea; gaur egun lan hori egiten duena bezalako batek hain zuzen(zenbait erakunde hartzen ditu barne: IHOBE, EEE, SPRI eta abar).

Hala ere, azaldutako arrazoi berberengatik, uste dugu prozedura horrek leku handiagoa eman beharko liokeela batzorde teknikoarekin zerikusirik ez duen kanpo-ezagutzari; horrela, aginduaren informazio publikoaren izapideak aukera emango die interesdunei, identifikatutako teknologiei buruzko gogoetak egiteaz gain, beste batzuk proposatzeko, batzorde teknikoak balora ditzan.

Badakigu prozeduran aldaketa eginez gero, **64/2006 Dekretuan** aldaketak egin beharko zirela. Arau hori bere momentuan Kontseiluak baloratu ez zuenez, irizpen honetan egiten da gogoeta.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

Zioen azalpena

Zioen azalpenak nabarmendu egiten du Teknologia Garbien Euskal Zerrenda zuzenean lotzen dela indarrean dauden lege, estrategia, programa eta planekin, eta zenbait zerrendatzen dira.

Hau iradokitzen da: **oraintsu onetsitako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen aipamen bat txertatzea.**

Lege horren 58. artikuluan Teknologia Garbien Zerrendaren onarpena eta eguneratzea jasotzen dira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako baldintzen arabera.

2. art. Teknologiak hautatzeko irizpideak

Proposatzen dugu artikulu honen **3. apartatua** letra lodiz nabarmendutako testuarekin osatzea:

*“3. Aurreko ataletan zehaztutako hautaketa-irizpideak aldatu ahal izango dira Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen den hurrengo aldietan. **Etorkizuneko irizpide horietan beren beregi hartuko dira barne berrikuntza eta, zehazki, eko-berrikuntza**”.*

Justifikazioa: Arauak zehaztu nahi duen testuingurua ikusita eta sustatu nahi duen xede nagusia kontuan hartuta, zentzuzkoa dirudi sinergikoki teknologia garbia lotzea berrikuntza eta eko-berrikuntzarekin.

V.- ONDORIOA

EGABek egokitzat jotzen du *Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen aginduaren proiektua* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetak aintzat hartuta:

Bilbon, 2024ko apirilaren 15ean

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondoa Sarria